



KULTURA, EUSKARA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

JARDUERA NAGUSIAK

Arteleku
Koldo Mitxelena
Elebitasuna
Normalizazioa saltoki handietan
Koldo Mitxelenaren lan guztiak
www.kirolak.net

ARTELEKU

Obrak direla eta urte betez itxita egon ondoren, 2002ko ekainaren 21ean ireki zen berriro, zenbait ekitaldi eginez, Arteleku berria. Behe solairu osoa guztiz eraberritu da eta prest utzi da gaur egungo sorkuntzan teknologia berriei sarrera eman nahiak dakartzan erronkei erantzuteko moduan. Beste bi solairu osoak "utzitako tokiak" antolatzeke prestatu dira, hau da, gaur egungo sorkuntzarekin lotuta dauden kultura jarduerak aurrera eramaten dituzten artista, elkarte eta enpresei uzteko.

Ahalegin handia egin dugu komunikabideei proiektuaren berri ematen eta jendeari irekitako hainbat ekitaldi antolatzen ere, erabiltzaile berriak, ahal diren gehienak, erakartzeko asmoz. Ekimen horietan guztietan maila ona lortu dugu, bai arrakastaren aldetik eta bai jende arteko oihartzunaren aldetik.

Bestalde, jendearen Internet bidezko parte hartzea gero eta handiagoa dela ikusirik, gure web orriaren konexio gaitasuna asko samar handitu dugu. Gaurko egunean, 2.500 lagun baino gehiagok jasotzen dute astero *Arteleku berriak* posta elektronikoz.

Arteleku birmoldatzeak izan du berehalako eraginik ere: Europako Artearen Biurtekoak, Manifesta deritzanak, zentro hau aukeratu du 2004. urtean Donostian egingo den Manifesta 5 biurtekoaren egoitza nagusi eta produkziogune izateko. Horrek behartu egingo du instituzio hau agente laguntzaile dituenekiko elkarlana indartzera; zehazki, zenbait elkarte eta taldetan antolatuta *proiektu asoziatuak* deitzen diogun programa osatzen dutenekikoa. Programa horretan kultur agente independente aktiboek, elkarte edo enpresek gidatutako ekimen autonomoak bultzatzen dira, Artelekuk dituen antzeko kezkek eta proposamenak lantzen dituztelarik, haren programazioaren aberasgarri diren ekintza eta jarduerak egiten baitituzte eta ekoizten lagundu.

Ildo horretan daude *D.A.E., Consonni, Amasté* eta *BIT.ART* proiektuak, ikuspuntu desberdinetatik abiatuta, arte, kultura, gizarte, politika, ikuskizun eta abarren artean zubiak egin nahi dituztenak; *Mugatxoan* eta *Okupgraf* proiektuak, dantzaren eta grafikaren mugak, diziplina muga bezala ikertzeko sortuak; eta *Arte&Electricidad* proiektua, sorkuntzaren teknologia berrien aurreko jarrera erresistentziazko/menpekotasunezkoak -era askotakoak- proposatzen dituenak.

Jardueren programazioan lehengo gidalerroekin jarraitzen dugu, instituzio arteko harreman sarea sustatzen eta nazioarteko harremanak sendotzen ahaleginak eginez. 2002. urtean honako erakundeekin batera lan egin dugu hainbat jardueratan:

_ Koldo Mitxelena Kulturunea; Donostia Kultura, Euskal Herriko Unibertsitatea, Musika Hamabostaldia, Chillida-Leku, Vicontec; Bartzelonako Tapies Fundazioa, Bartzelonako Arte Garaikideko Museoa; Andaluziako Nazioarteko Unibertsitatea, Portoko Serralves Fundazioa eta Rotterdango Witte de Wite.

Horiei beste hainbat erakunde erantsi behar dizkiegu, edo gure programa edo proiektu asoziatuak ondo bideratzen lagundu baitigute. Horien artean:

_ Gaztemaniak; Eusko Jaurlaritza; La Madrasa (Donostiako mundu arabiar islamikoaren zentroa); Gironako Papers d'arts; Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa; The British Council; AFAA (Arte Ekin-tzako Frantziar Elkarte), VEGAP (Artea eta Zuzenbidea Fundazioa); Madrilgo Kultura Ministerioa; Belfasteko Argazki Artxiboa; Belfasteko Linen Hall Library; Stuttgarteko Academie Schloss Solitude, eta abar.

Lankidetzaren sare hori sendotzearen, "*Superposiciones*" programa jarri dugu abian, munduko edozein tokitan ari direla ere, Artelekuren antzeko ikuspegia duten proiektu, jarduerak eta pertsonen berri nazioarteko mapa batean jasotzeko asmoz.

KOLDO MITXELENA KULTURUNEA

2002. urtean zehar bere xede nagusiak betetzen aritu da Kulturunea, hauexek hain zuzen ere:

_ Liburutegian eduki digitalak ugaritu ditu eta zerbitzu berriak jarri ditu abian, informazio teknologia berrietan oinarrituta, gipuzkoarrek liburutegiko fondoak eskuratzeko dituzten muga fisikoak ezabatzen joateko (liburutegien arteko mailegutza, irakur-giden edizio digitala, web orri espezifikoak garatzea, euskal aldizkarietako artikulu hustuketa egitea eta datu oinarri katalogafikoan sartzea eta abar).

_ Koldo Mitxelena Kulturunean antolatzen diren kultur ekintzak Internetetik emateko instalazio teknikoak amaitu ditu.

_ Liburutegiko dokumentuak digitalizatzen jarraitu du, liburutegi birtuala sistematikoki sortuz (*Julio Urkixoren gutunak, XIX. mendeko liburuxken bilduma, Ikusle: Euskal Herriko grabatuen bilduma digitala*). Eduki digitaleko interes zentroak definitu du (Gipuzkoa 1936), ondoren halakoak egin ahal izateko.

_ Dokumentu fondoak euskarri dokumental berrietan (DVD esaterako) aberastu du, euskarri berri horietan ere zabalak izan dezaten. Eduki propioak sortu ditu euskarri horretan.

_ Liburutegi hibridoaren kontzeptua landu du gehiago, euskarri tradizionalak eta berriak uztartuz, zuzeneko zerbitzuak eta telematikoak eskainiz eta liburutegia jendearen topagune zuzenaz gainera kanpo-ekintzen proiektio leku bihurtuz.

Europa eta nazioarteko proiektzioa

_ Kultur hedapeneko europar sareetan KMren presentzia sendotu ds, batez ere KM Kulturuneko erakusketa programen bidez: urtean behin Europako beste erakunde batzuekin batera erakusketa proiektu zehatz bat antolatzen du KM Erakustaretoak (kasu honetan, *Per Barclay artistaren erakusketa eta argitalpena*, Noruega eta Frantziarekin elkarlanean).

_ Liburutegien foru euarparretan parte hartu dugu (*Gazteei eta Liburutegi buruzko Biltzarra, Dresden, Berstelman fundazioaren bitartez*).

_ Gipuzkoako artista gazteei izen handiko zentroetan erti prestakuntzan sakontzeko laguntza eman die Departamen-

tuak, hangoekin alderatu eta erti homologazio egiteko (13 bekadun European).

_ Kultur eskaintza aberasten jarraitu dugu, kanpoko ertigile, konpainia eta ikuskizun onak ekarriz, nahiz Departamentuak egindako zuzeneko eskaintzaren bidez nahiz departamentuaren laguntza duten taldeen programen bidez (fundazio, jaialdi eta elkarteak medio).

Gipuzkoako kultur aniztasuna kudeatzen

_ KM Kulturuneak eskaintako kultur programazioan, Gipuzkoako gizartearen kultur ezaugarri zabaletan lekua duten interesgune, proposamen eta kezkei agerpidea eman zaie. Literatur ekintzak eta zikloak antolatu dira KMn (*zientzia, teknika, kultura eta gizarteari buruzko jardunaldiak; arrazakeriari buruzko mintegia, SOSa-arrazakeriarekin batera; Juan Mari Lekuona eta P. Laffiteri buruzko saioak, Euskal Kantagintza...*).

_ Bertako kultur agerpideak, jatorriz eta proiektioz unibertsalagoak direnekin uztartu dira KM Kulturuneko programazioan, kultura lokala, euskal kultura eta nazioartekoa (*Clarice Lispector, Marlene Dietrich, Bloomsday, Per Barclay eta abar*) hedatzeko dituzten kultur zikloak, solasaldiak, erakusketak eta argitarapenak eginez.

_ Departamentuak kulturaren alorrean dituen laguntza deialdietan balorazio irizpideak zabaltzen eta anizten segitu dugu, Gipuzkoako kultur mundu zabalean sortutako ekimenak bildu eta baloratzeko balio dezaten (50 elkarte baino gehiago lagundu dira).

_ Gipuzkoako arte eszenikoetako enpresak sendotzea sustatu dugu (15).

Emakumezkoen proiektzioa kulturaren

_ KMko kultur programazioan emakumezkoak arte sorkuntzan egiten ari diren lana islatu dugu (Isabel Azkarate, Rosa Valverde).

_ Zerbitzuak kudeatzen dituen deialdietako organo aholku-emailetan (epaimahai, aholku-talde eta halakoetan) emakumezkoen partaidetza sustatu du Departamentuak.

ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKOAREN, ARTXIBOEN ETA MUSEOEN ZERBITZUA

Ondare Historiko-Artistikoaren, Artxiboen eta Museoen Zerbitzuak Gipuzkoako kultur ondarea berreskuratu, zaharberritu eta zabaltzea du helburutzat. 2002ko urtean zehar, aurreikusitako lan jardunak burutzat joan gara oro har, ditugun helburu estrategikoak kontuan edukiz, horien artean:

- a) Gipuzkoako ondarea herritarren eta, oro har, mundu osoaren eskura jartzea informazio eta komunikazioko teknologia berrien bidez.
- b) Baliabideei ahalik eta zukurik handiena ateratzea, Europako esperientzia eta baliabide ekonomikoak aprobetxatuz eta Europarekin batera lan egiteko bideak irekiz.
- c) Jaso dugun ondarea zaindu eta zabaldu egin behar dugula geureganatzea, egungo eta etorriko diren belaunaldien zerbitzura egon dadin, eta horretarako kultur agente eta herritar guztien laguntza behar dugu.

Lehen helburu estrategikoari dagokionez, adierazi nahi dugu Gipuzkoa Informazioaren Gizartean (*«Administrazioa eta «Gipuzkoa» Foru Planaren barruan*, eta aurrekontu arruntean ere, dokumentuak digitalizatzeko programa aurrera ari garela eramaten, nahiz ondare historiko artistikoaren arloan, nahiz arlo etnografiko, dokumental eta arkeologikoan gordeta dauden edo produzitu diren materialak erabiltzeko moduan jartzeko.

Bigarren helburuari dagokionez, azpimarratu nahi dugu europar egitura fondoek finantzatu duten *2000-2006 Helburua programaren* barruan ondarea eskuratzeko lanen dokumentazio zurigarria tramitatu dugula. Ondare Historiko-Artistikoaren, Artxiboen eta Museoen Zerbitzuak guztira 800.000 euro zuritu ditu, horrek esan nahi duelarik gutxi gorabehera 400.000 euroko diru laguntza izan dezakegula. Arlo horretan bertan, europar eremuan presente egoteari eta beste baliabide ekonomiko batzuk aurkitzeari dagokionez, *Kultura 2000 europar programan* Getariako Salbatore elizako aurkikuntza arkeologikoak zabaltzeko proiektua aurkeztu dugu.

Hirugarren helburuari dagokionez, gogoratu nahi dugu, ondarea zaintzeaz sentsibilizatzeari dagokionez, ondare arkitektonikorik berriena zaintzeko lanak areagotu egin ditugula, eta horrela maiatzean hasi zen hitzaldi zikloa, *Gaur egungo mugimenduari buruzko I. Jardunaldiak 1920-1968. Gipuzkoako ondare arkitektonikoa berrikustea* izenpean. Ziklo horri jarraipena eman nahi diogu,

gaur egungo mugimenduko beste fenomeno batzuk (hiri-gintza eta industrializazioa) aztertuz. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialarekin elkarlanean eraman dugu aurrera proiektua.

Beste kultur agente batzuekin lankidetzan ere, kasu honetan Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Arkitekturako Goi Eskolaren eta hark antolatutako Ondare Arkitektonikoko Masterraren bidez, amaitu dugu *Sasiolako Monumentu Multzoaren Azterketa*.

Ondare Historiko-Artistikoaren alorrari dagokionez, ondoko lan hauek egin ditugu:

_ Foru Aldundiaren ondarea berreskuratu eta zabaltzeko lanei dagokionez, adierazi nahi dugu Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserrian behar genituen lur sailak erosi ditugula eta proiektua ere egin dugula. Laster egingo dugu deialdia Interpretazio Zentroa eraikitzeko obrak egiteko.

_ Aiako Agorregiri dagokionez, aipatu behar dugu aparkalekua egin dugula, hori delarik lehen urratsa hango zabalkunde programak areagotzeko.

_ Arlo horretan bertan, baina *Plan Bereziaren* barruan, Loiolako basilikaren barnealdea eraberritzeko lanak amaitu ondoren, uztailearen 19an ireki zen berriro. Santa Teresa komentua ohia birgaitzeko obrak aurrera doaz, baina aurreikusitako egutegia ez gara ari betetzen, Donostiako Udalak eman beharreko baimena emateko orduan oztopoak jarri zituelako.

_ Aldi berean, Gipuzkoako Ondare Historiko-Artistikoaren Zentroaren proiektuan proposatutako erabilera programa ere ari gara lantzen.

Foru Aldundiarena ez den ondarea zaharberritzeari dagokionez, Hondarribia, Lezo, Lasarte eta Tolosako elizak zaharberritzeko emandako diru laguntzak aipatu behar dira. Arkeologiaren ikuspegitik, Zarauzko elizan egindako lana azpimarratu behar dugu, erromatarren garaiko hondakin asko aurkitu zirelako. Era berean, Ihartzako burdinolako indusketa lanetan Beasaingo Udalarekin egin dugun elkarlana aipatu nahi dugu, garrantzi handiko aurkikuntzak egin baikenituen.

Argitalpenei dagokienez, Bertan bildumako beste 2 ale argitaratu ditugu: *Gotorlekuak Gipuzkoan. XVI-XIX. mendeak eta Zeramika Herrikoia Gipuzkoan.*

Artxiboei dagokienez, Gipuzkoako Artxibo Orokorrean Indalezio Aranguren Argazki Artxiboa dago eta hor dauden Gipuzkoaren gaineko argazkiak digitalizatzeko programak aipatu nahi ditugu hemen, eta Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoko protokoloen planoak digitalizatzeko programaren jarraipena ere.

Zabalkundearen arloan, Sigfrido Koch (1932-1992) argazkilariari buruzko CD bat egin dugu, izan ere Gipuzkoako Foru Aldundiak haren argazki artxiboaren zati bat du eta haren heriotzaren 10. urteurrena bete da. CD hori Koldo Mitxelena Kulturuneke atarian erakusteko erabili digu. Erakusketa hori Gipuzkoako Artxibo Orokorrean, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikora eta bestelako kultur aretoetara ere eraman nahi dugu. Argitalpenei dagokienez, hemen gogorazi nahi dugu *El Triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539)* liburuaren argitalpena.

Gipuzkoako Artxibo Orokorrean kontsultatu diren dokumentuak 8.067 izan dira eta Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan 7.715.

Museoen arloan azpimarratu nahi dugu hemen, urrian, Zumalakarragi Museoak antolatu zuen *Grabatua mundu digitalean: Esperiencia eta proiektuak zabalkuntzaren aurrean* izeneko sinposioa, aditu ugari bildu zituen eta maila zientifiko handikoa izan zena. Azpimarratu nahi dugu, era berean, Zumalakarregi Museoak antolatutako *Le tour du monde. Explorazioak. XIX. mendean* erakusketa, abenduan Bilbon egin zena.

Untzi Museoari dagokionez, azpimarratu nahi dugu Gipuzkoako portuen irudiei buruz Petit du Meurvillen akuarelekin egin genuen erakusketa eta 1850-1950 garaiko euskal itsasertzeko portuetako eguneroko bizitzako irudien gainean abenduan inauguratu zen *Itsas Marruma* erakusketa.

Aurten ere jarraitu egin dugu Aiako Agorregiko burdinola eta errotetara eta Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserrira egindako bisita gidatuekin.

Zabalkundearen arloan, azpimarratu nahi dugu dispositibo ezberdinetarako Errealitate Birtualeko sistema sortzeko Vicontech Asociación enpresari eman diogun enkargua, historia nahiz kultur eta arte ondarea narrazio digitalen bidez bizi dadin Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserrian, baserri horren zabalkunde proiektuaren barruan.

Azkenik, adierazi nahi dugu aurreko urteetan bezala eta erosketa programaren barruan, arte lanak, dokumentuak, interes etnografikoa duten objektuak eta abar erosi ditugula, eta horien barruan argizaiolen (XVI-XIX) bilduma oso garrantzitsua eta Didier Petit de Meurvillen *Gipuzkoako Ikuspegiak* bilduma nabarmendu behar dira.

EUSKARAREN SUSTAPENA

Teknologia berriak

_ Tradiziozko euskal kultura informazio eta komunikazio-teknologia berrietara egokitzea xede duten jardueri laguntza berezia; zehatzago, Xenpelar Dokumentazio Zentroak ahozko literaturaren arloan garatutako proiektuei.

_ 2002ko ekitaldian *Euzko Gogoia (1950-1959)* aldizkarian jasotako literatur funtsak digitalizatzeko lanak burutu ditugu eta, horren ondoren, Interneten jarri ditugu horiek.

Hezkuntza

_ Galtzagorri Elkartearekin daukagun hitzarmenaren bidez bigarren irakaskuntzako ikasleen artean irakurketa sustatzeko programa garatzen jarraitu dugu. Programaren eragin-eremua pixkanaka-pixkanaka zabalduz doa.

_ Liburuaren eta irakurketaren sustapenaren ildo beretik, euskaraz liburuak eta ikus-entzunezko materialak argitaratzen dituzten argitaletxeei laguntzak ematen jarraitu dugu, *EIMA, EULI, EUBI* eta *Unibertsitate gaien euskal liburutegia* deialdien bidez, hain zuzen.

Laguntzak

_ Lehen aldiz ireki dugu Gipuzkoako kirol federazioentzako laguntza-lerro bat euren jarduketaren eremuetan euskararen normalizazioaren aldera programak burutu ditzaten.

_ Aldi berean, euskararen erabilera gizartearen sustatze-lanetan diharduten entitateentzako, udalerrri eta eskualdeentzako komunikabideentzako eta gazteen aisialdiarekin zerikusia duten proiektuentzako laguntzak ematen jarraitu dugu.

Unibertsitatea

- _ *Julio Urkixo Euskal Filologiako Mintegia*. EHU n sartu da eta unibertsitateko institutu izaera du.
- _ EHUko Filologia Fakultatearekin lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dugu Koldo Mitxelenaren lan guztiak argitaratzeko.

Sustapen kanpainak

- _ Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiarekin batera, kirolaren praktikan inguru euskalduna sustatzeko programa bat garatu dugu, prestakuntza-jarduerak eginez, kirol-arloko prestakuntzarako materialak argitaratuz, ikastaroak antolatuz eta abarrez.
- _ Departamentuak gazteen aisialdiko gaietan euskararen erabilera sustatzeko *Astindu ahoan duzuna* kanpaina jarri zuen abian. Kanpainak arrakasta handia lortu du eta ezaguna egin da hartzaileak zituen gazteen sektorean.
- _ Aisialdiarekin eta astialdiarekin zerikusia duten euskarazko produktuen sustapenaren arloan *Euskara da oparirik onena* kanpaina burutu dugu, besteak beste, telebista erabiliz.

Euskararen normalizazioa

- _ Uliazpi Fundazioko euskararen erabilera normalizatzeko plana behar bezala aplikatzeko laguntza eman dugu.
- _ Aldundiaren administrazioaren alorrean euskara zabalteari eta sustatzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan eta ekainaren 2ko 54/1998 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorrira, euskararen erabilera-planak antolatu eta kudeatu ditugu. Lanean beharrezko hizkuntza-gaitasuna izateko *Alet programa* ere kudeatu dugu.
- _ Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiarekin batera, DBHko ikasleentzako *Hire esku* programa burutu dugu Orioko Txurruka aterpetxean. Programaren helburua euskararen erabilera gazteen artean sustatzea da.
- _ Kirol Zerbitzuarekin elkarlanean, kirol arloan euskararen erabilera sustatzeko 3 urteko (2001-2003) plan bat idatzi dugu.

Itzulpengintza

- _ Bertako hizkuntza ofizial batetik bestera egin ohi ditugun itzulpenez gain, gure Zuzendaritzak Europako beste hizkuntzetatik edo beste hizkuntzetara itzultzeko dagoen gero eta eskaera handiagoa kudeatu du. Itzulpen hauek batez ere beste administrazio batzuetan (Europar Batasuna) izapidetu beharreko dokumentazioari dagozkio. Urtean zehar, honako itzulpen hauek egin ditugu departamentuentzat:

ABIABURUKO HIZKUNTZA	XEDE HIZKUNTZA	ITZULITAKO ORRIALDEAK
en	eu/es	360
fr	eu/es	85
de	eu/es	5
beste batzuk/ otros (gl,ca,it...)	eu/es	25
eu/es	en	347
eu/es	fr	244
eu/es	beste batzuk/ otros (gl,ca,it,de...)	27
GUZTIRA		1.093

GAZTERIA

Departamentuak parte hartu du *EAEko I. Gazte Plana* ebaluatzen, baita bigarren plana prestatzen ere. 2002ko irailaren 10ean, Diputatuen Kontseiluak Foru Aldundiak *II. Planarekin* bat egitea onartu zuen.

Astialdia eta Aisia

Programa honetan parte hartu gabe gelditu izan diren gazteak parte hartu dutenak baino gehiago izan direla kontuan hartuta, gaur egun eskaintzaren eta eskaeraren artean dagoen desorekari aurre egiteko xedez, 7 eta 13 urte bitartekoentzako eskaintza murriztu egin da 7 eta 10 eguneko programetara. Eskaintako plazak 7 eta 13 urte bitartekoentzat 2.043 izan dira (6.536k izena eman dute) eta 567 14 eta 17 urte bitartekoentzat (1.469k izena eman dute). Programaren guztirako okupazioa %99koa izan da.

2002. urtean, programetarako erreserbak egiteko prozesuaren izapideak modu telematikoan egiteko aukera egon da. Izena eman duten guztien %31,8k modu hau aukeratu eta erabili du.

Udako eskaintzaz gain, baina lan-ildo horretatik, urte guztirako eskaintza iraunkorra dago Orioko Txurruka aterpetxean. Programa honen helburua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gaztetxoan artean euskararen erabilera sustatzea da. Programaren okupazioa ia %80koa izan da.

Haurrentzako eta gazteentzako elkartegintza

Arlo honetan, elkarreentzako aholkularitza-zerbitzurako materialak eguneratu dira, legearen alderdiez gain, zerga, ekonomia, komunikazio eta beste alor batzuekin ere zerikusia duten materialak alegia. Era berean, umeen astialdian lan egiten duten gizarte-eragile guztiak batzen dituen plataforma bat abian jartzea sustatu eta horretarako lankidetzak eskaini dugu. Plataforma hori Astialdi Foroa da.

Gazteentzako informazioa

Joan zen ekitaldian egindako lanetik aipagarriena kalitate-plan bat abian jarri izana dugu. Kalitate-plan horren helburua zerbitzu hau herritar guztien informaziorako eskaintzen diren antzeko zerbitzuekin parekatzea izan da. Halaber, Oñatiko eta Donostiako Goikoa Jauregian dagoen gazteen informaziorako udal bulegoak onartu izan ditugu.

Gaztemaniak!

2002. urtean, programa honetako ekintzarik aipagarrienak honako hauek izan dira:

a) Donostian, Zarautzen eta Oñatin egindako musika ez-komertzialaren kontzertuak.

b) *Gaztemaniak!* bildumako beste CD bat, seigarrena, argitaratzea, gipuzkoar taldeen 12 abesti zati sartuz. Horren helburua taldeen sustapena egitea izanik, banaketa, hortaz, prentsa eta promotore bidez egingo da.

c) Gazteek egindako musikari eta kultur sormenari buruz Gipuzkoan antolatutako zenbait jardunalditan parte hartzea.

d) *Musika Berrien Jaialdian* eta *Elektronikaldian* parte hartzea.

Behatokia

2002. urtean zehar, beste batzuen artean, egindako ondoko lan hauek azpimarratu nahi ditugu:

a) Gaztemira bildumako 2 azterlan berri argitaratzea: *Gazteak eta etxebizitzari buruzkoa* eta *Gazteen mugikortasunari eta bide-istripuei buruzkoa*.

b) *Gaztemira* gazteriaren alorreko profesionalentzako banaketa-zerrendaren 44 argitalpen.

c) European Youth Observatory behatokiak Barzelonan izandako topaketetan parte hartzea.

Udalen Programak

Alor honetan, udal teknikariek batera hausnarketa egiteko 2 mintegi abian jarri izana azpimarratu behar da. Gaiak honako hauek izan dira: *Aisialdia nerabezeroan* eta *Gazteentzako ekipamenduak gazteria-politika lokaletan*.

Aterpetxeen Programa

a) Erreforma bukatuta, Zarauzko aterpetxea zabaltzea.

b) Aterpetxeetan erreserbak egiteko teknologia berrietara egokitutako programa berria (erreserba telematiko).

c) Lau aterpetxeetan ebakuaziorako plan bana ezartzea: seinaleztapena, pertsonala trebatzea, egin beharreko egokitzapenak eta abar.

KIROLAK

Kirol sustapen instituzionala

Kirolaren alorrean mugez gaindiko elkarlanaren alde lan egiten duen gune iraunkor moduan, Kirolaren Eurosarea sendotzea. Ildo horretatik *Kirola mugarik gabeko Europan: kirol jarduerak mugaz gaindiko eremuetan* mintegia antolatu izana azpimarratu behar dugu. Halaber, 2002ko azaroan Donostian *Europako mugaz gaindiko eskualdeetako kirol sareen I. Biltzarra* burutu zen. Azkenik, Segura 2002 topaketak ere egin ziren eta horietan europar herritartasunaren kontzientzia berria sortzen laguntzeko eta ingurune naturaleko jardueraz baliatuz, proiektu erkide bat prestatzeko Europako hainbat herrialdetako gazteen lankidetzaz izatea lortu da.

_ Informazioaren teknologia berrien sustapenari dagokionez, EHUrekin elkarlanean jarraitu dugu sareko kirol ikerketa birtualeko zentroaren (CINVIDERE) funtzionamenduan.

_ Ildo horretatik, Departamentuak, Gipuzkoako kirol federazioekin elkarlanean, abian jarri du www.kirolak.net interneteko ataria. Honek gure lurralde historikoko kirolari buruzko hainbat zerbitzu eta eduki eskaintzen ditu. Kirolgela Birtualaren lehen eduki hezitzaile birtuala prestatzeko jarraibideak ere ezarri dira.

Kirol sistemaren egituraketa

_ Departamentuak Gipuzkoako 12 kirol modalitate (saskibaloia, eskubaloia, arraunketa, atletismoa, piraguismoa, mahai tenisa, belarreko hockeya, aretoko futbola, badminton, beisbola eta softbola, sokatira eta rugbya) antolatzeko prozesua burutzen jarraitu du. Hori antolaketa-proiektuen bidez burutu da eta proiektuetan modalitate bakoitzak aurkeztu ditu aurten eta datozen urteetarako dituen helburuak.

Kirol ekipamenduak

_ 19/2001 Foru Araua eta 20/2001 Foru Araua betez eta garatuz, kirol instalazio hauen finantziatorako laguntzak onartu ditugu: Zubietako Futbolaren Teknikifikazioarako zentroaren, Irungo ur zakarren zelaiaren eta segur aski Donostian izango den borroka arteetako aretoaren finantziatorako.

_ Gipuzkoako kostaldeko surf-spotak seinalezatzeko azterlanak eta laguntzak onartu ditugu, baita Gipuzkoako kirol instalazioetarako sarbideak hobetzeko ere.

Hastapenak kirolean

_ Eredua finkatu egin da eta lehiaketa, teknifikazio zein kirolaren sustapenerako jardueretan ia 65.000 eskola-umek parte hartu dute. Horrez gain, herrietan eskola kirola zaindu eta kudeatzeko egiturak jarri eta hura aurrera ateratzeko prozesua aurrera doa. Bide horretan, Aiako, Asteasuko, Azpeitiko, Azkoitiko, Errezilgo, Orioko eta Soraluzeko udalekin lankidetzaz hitzarmen berri bana izenpetu da.

Kirol Federatua eta Errendimendukoa

_ Gipuzkoako kirol federazioei eta kirol klubei laguntza emateko politika aurrera eraman dugu, ohiko laguntza-ildoetatik hain zuzen. Gainera, eta federazio gehienetako zuzendaritza-batzordeetako kideak berriak izanik, kirol federazioei doako aholkularitza eskaini diegu, euren funtzionamendu egokia errazteko. Ildo horretatik, Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkartearen kudeaketa profesionalizatzea sustatu dugu federazioek dituzten behar berdinei erantzun ahal izateko.

_ Errendimenduko kirolari dagokionez, babesle berriak aurkitzeko eta lehengoek jarraitzeko egindako gestioei esker, Kirolgi fundazioa finkatu eta sendotu da. Gainera, Aldundiak fundazioari egiten dizkion ekarpenak handitu dira, klub liderren eta azpi-liderren 2001-2002 denboraldiko ekarpenak likidatzeko 218.618 euro gehiago eman dizkio eta. Horrez gain, goi-mailako lehiaketan jarduteari klub horiek etorkizuneari berme handiagoei aurre egin ahal izateko Aldundiak fundazioari 5 urteko ekarpena egitea bermatuta dago. Babesleen laguntzari esker, 2001-2002 denboraldian, fundazioaren estatutuaren aurreikusitako hiru jarduketan ildoei aurre egin ahal izan zaie; hots, talde liderrei laguntzak emateko, norbanako kirolari laguntzak emateko eta kirol modalitateak finantzatzeko ildoei aurre egin zaie. Horien bidez, fundazioak laguntzak eman dizkie 267 klub, 769 talderi eta 20.000 kirolariri baino gehiagori.

Kirola denontzat

2002ko ekitaldian, Gipuzkoan Kirola Denontzat sustatzeko jarduerak bultzatzen dituzten entitateekin lankidetzan jarraitu dugu; hau da, udalekin, federazioekin, klubekin eta unibertsitateekin elkarlanean jarraitu dugu. Laguntza horiek herritar guztiarentzako jardueren programak antolatze eta praktika-mota horretarako kirol materiala erosteko izan dira.